

Jarduera programa egonkorak dituzten irabazi asmorik gabeko kultur entitateei Gipuzkoan kulturaren edozein esparrutan proiektuak egiteko laguntza.

ESKATZAILEAK

Kulturaren esparruan jarduera programa egonkorak dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak (Federazioak edo antzeko entitateak)

- Edozein arte edo kultur arlotan lan egiten dutenak, esaterako, musika, antzerkia, dantza, arte bisualak, literatura, pentsamendua eta kultur ondarea bezalako arloetan.
- Espezializazio eta/edo berezitasun handia duten eta lurraldearen kultura eskaintzari ekarpen esanguratsua egitea.
- Eskazaile bakoitzak eskaera bakarria aurkez dezake deialdi honetan.

Diruz lagungarriak diren jarduerak:

Ikerketa, prestakuntza, sentsibilizazioa edo koordinazioa arlo artistiko ezberdinetan, eta zabalkunderako ekintzak –hala nola festibalak, zikloak eta lehiaketak– antolatzea.

BALDINTZAK

- Gutxienez aurreko bost edizio izatea
- Gipuzkoan garatu beharko da
- Lurraldeko kultur eskaintzari ekarpen nabarmena egitea.
- Deialdiaren urte naturalean gauzatzea, (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean)
- Ekonomikoki bideragarria izatea
- Programa publikoak badira, publiko orokorrarentzat irekiak

GEHIENEZ 30.000€

AURKEZTU BEHARREKOA

Eskaera orria bete behar da, honako hau aurkeztuta:

- Proiektuaren laburpena eta aurrekontua (diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua eta orekatua) (derrigorrezkoa)

Eskaera orria egoitza elektronikoa dago eskuragarri

BALORAZIOA BI FASETAN

-1. fasea: balioetsiko dira, batetik, entitatearen ezaugarriak eta, bestetik, aurkeztutako programa edo jarduera zenbateraino egokitzen den deialdi honen xedeetara. 65 puntu arte

-2. fasea: balioetsiko dira aurrekontuaren egokitasuna eta zeharkako irizpideak, besteak beste, hizkuntza ofizialen eta genero berdintasunaren ikuspegiaren erabilera. 35 puntu arte

1. fasean 35 puntu lortu beharko dira 2. fasera igaro ahal izateko, eta gutxienez 60 puntuko balorazioa lortu beharko da bi faseen baturan, proiektua diru-laguntza emateko proposamenean sar dadin.

KANPO GELDITZEN DIRA

Suntsikorra ez den ekipamendua eta materiala erosteko inbertsioen gastuak eta lokalak egokitzeko lanak.

- a) Beren izaeragatik edo xedeagatik, Kultur Zuzendaritza Nagusiaren jarduketa esparruekin zuzenean zerikusirik ez dutenak
- b) Diru laguntza izenduna jaso behar dutenak
- c) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko beste laguntza deialdi batzuetan espresuki sartuta daudenak edo hobeto egokitzen direnak
- d) Aisia eta denbora librearen okupaziora nahiz gazteriarri zuzendutakoak
- e) Jai-programak eta erritu izaerakoak
- f) Azoka tematikoen antolaketa
- g) Nekazaritza azokak eta gastronomiari lotutako lehiaketak eta jarduerak
- h) Izaera profesionaleko ikuskizun eszenikoen, ikus-entzunezkoen eta musikalen sorkuntza eta ekoizpena
- i) Artista, talde edo ikuskizun beraren emanaldi errepikatuak dakartzaten birak edo proposamenak
- j) Turismoa sustatzeko jarduerak
- k) Disko, liburu edo antzekoen ekoizpena edo edizioa

SALBUESPENA

Egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoatik kanpo duten irabazi asmorik gabeko kultur entitateek ere eska dezakete laguntza, baldin eta horien jarduera Gipuzkoako lurraldean garatzen badute eta jarduteko programa egonkorak badituzte.

1. fasea	65
Erakundearen ibilbidea eta esperientzia	10
Proposamenaren interesa eta testuinguruaren azterketa	10
Kultur eskaintzari egindako ekarpena	10
Berrikuntza eta esperimentazioa	15
Parte hartzeko bideak eta lankidetzak- sareak irekitzeko eta mantentzeko gaitasuna	10
Zentzua eta jarraitutasuna	10
2. fasea	35
Proposamenaren bideragarritasuna, helburuei dagokienez	9
Euskararen presentzia eta erabilera	8
Genero ikuspegia txertatzea	8
Gazteak sartzea	10

DIRU KOPURUA

Diru laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko Diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen % 70a.

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren % 30 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

EPEAK

- **ESKAERAK AURKEZTEKO**

Dirulaguntza horien eskaerak aurkezteko epea 28 egun naturalekoa izango da.

Azken eguna: 2023-03-30

- **ZURIKETA AURKEZTEKO**

Agiriak aurkezteko epea deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da.

- **ORDAINKETA**

Laguntzak bi zatitan ordainduko dira: %60 emateko ebazpenarekin batera eta gainerako %40a diruz lagundutako jarduera amaitu ostean.

TRAMITAZIOA NOLA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/>). Horretarako pasahitz operatiboa eduki behar duzu, edo ziurtagiri digitalen bat (B@kQ, DNle...)

Taula hau K bulegoak egindako laburpena da.

Araudi aplikagarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa da eta komeni da arretaz irakurtzea eskaera egin baino lehen:

Oinarri orokorrak [BOG núm 78. de 29 de abril de 2021](#)

Oinarri espezifikoak eta deialdia [GAO, 42 zk., 2023ko martxoaren 2koa](#)

Edozein zalantza baduzu, K bulegoarekin jar zaitezke harremanetan telefonoz, emailaz edota bertara hurbilduta. Atsegin handiz lagunduko zaitugu zure eskaerari dagokionez izan ditzakezun dudekin.

T 943 11 33 43 / kbulegoa@gipuzkoa.eus/

www.kbulegoa.eus

Santa Teresa komentua

Elbira Zipitria bidea 1

20003 Donostia

Astelehenetik ostiralera: 09:00 - 14:00

* Bidelaguntza zerbitzua erabilgarri duzu, bulego ordutegitik kanpo ere.

K
B
U
L
E
G
O
A

